

OSTIRALA, 2025eko UZTAILAREN 4a

Sanferminak

PASAI ANT XO

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Txoko guztiak zuriz eta gorriz

**Gaur hasi eta asteartera arte Pasaiako
udako hirugarren festetan murgilduko
dira antxotarrak. Egitarauaren barruan,
askotariko 80 ekitaldi • 27-30**



Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA



943 634 536



www.goieko.com

Sanferminak
gozatu!

Topikoa izaten da festen egitarauen berri ematean, horiek denentzat direla esatea. Antxon behintzat hala da. Haur, gazte, heldu eta adineko, denek dute espazioa Jai Batzordeak landu duen ekitaldien zerrendaren barruan. Haurrek zehazki ia uneoro izango dute zertaz gozatu, barraketan ibiltzeaz edo eguneroko erraldoi eta buruhandietan parte hartzeaz harago.

Topaguneak, esaterako, txikienentzat egitarau propioa antolatu du, gaurtik (ostirala) hasita: 17:00etan tailerrak izango dituzte 5-10 adin tartekoek Gure Zumardian, eta gero (18:30), haurrek eta denek Moliñomari harrera egiteko tarte izango dute. Topagunearen egitarauarekin jarraituz, helduetan ohikoa den jarduera festazalea egingo dute gaztetxoek: bihar (larunbata) 16:00etatik Txorotxarangarekin barrutia alderik alde zeharkatuko dute.



Txikiak
bai, baina
festazaleak
ere bai

URKO ETXEBESTE PETIRENA

Gaurko 18:30ean iritsiko da Moliñomari Antxora, haurren gozamenerako.

Topagunea

Topagunean ere bai, sanferminen azken egunean puzgarriak izango dituzte haurrek, hilaren 8ko 16:00etan.

Topaguneak antolatutako ez gainera badira txikien gozgarri izango diren ekitaldi asko. Tartean, San Fermin Eguneako danborrada (17:30): Usozetik atera, eta herriari bira koloretsua emango diote gurasoen eta aiton-amonen segizioarekin. Hilaren 8an bazkaria dute Biteri plazan, Xaxordak antolatua.

Julian Mate

Maiatzean hil zen Julian Mate Ormazabal antxotarra. Barrutian eragile zen, eta beste askoren artean, bi arlotan nabarmendu zen: urte askoz erraldoi eta buruhandien konpartsako kide izan zen, eta bestalde, Galepertarrak elkarreko kide izanik, haiek antolatutako jai ekitaldietan buru-belarri aritzen zen, hala nola karabina txapelketan edo arrantza sariketan. Horregatik, aurtengo sanferminetako arrantzaleen lehiaketak haren omenezko izena eramango: bihar (larunbata) egingo da Julian Mate I. Memoriale Haurrentzako Arrantza Txapelketa, 11:00etan hasita.

Gaurko txupinazoan ere ziur gogoan izango dutela sanferminetan arrastoa utzi duen antxotarra. ■

Ostirala 4
23:00
DJ Iker Rodriguez.

Larunbata 5
18:30
Bertsolariak: Amets Arzallus, Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal eta Alaia Martin.
23:00
DJ Iker Rodriguez

MIMOS TABERNA

Igandea 6
18:30-22:30 eta 23:00
DJ Nemux.

Astelehena 7
23:00
DJ Lasa eta DJ Sagar.

Asteartea 8
19:30
Erromeria Alkarkide txarangarekin.

Gure Zumardia. 20110 Pasai Antxo. 943 24 90 23 @mimosantxo

CIFP DON BOSCO LHII



•DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA

Don Bosco alde z/g

•BERAUNGO ERAIKINA

Beraun kalea 1,
20100 Erreenteria

Tel.: 943 510 450
donbosco@donbosco.eus
www.donbosco.eus



**Lanbide heziketa
baino askoz gehiago**



Doinu eta soinu asko izaten dira festetan. Antxoko sanferminetan ere hala da. Festa zuri-gorrien doinutegian azken urteetan are indar gehiago hartu dute dultzainek, haien sinfoniak. Horren erantzule Antxoko Dultzaineroen Taldea da. «Normalean astean behin-edo batzen gara entseatzeko. Festak hurbildu ahala maizago; Pasaiaiko jaien aurkezpenan izan ginen ekainaren 21ean, eta orain sanferminak ditugu. Ezpainak eta giharrek egoki mantendu behar ditugu, instrumentu exigentea delako dultzaina», esan du Jon Arrizabalagak. Harekin batera Toñin Markina Buñuelko (Nafarroa) antxotarrak eta Joanes Diez lezoarrak (atabalaria) osatzen dute Antxoko Dultzainero Taldearen enborra.

Erraldoi eta buruhandien konpartzarekin irteten dira sanferminetan, txistulariekin partekatzen dituzte kalebuelta horietan musika jartzeko ardurak. Gainera, festetako egun batean, kanpotik iritsitako hainbat dultzaina talderekin herriko kaleak girotzen dituzte, aurten asteartean (hilaren 8an). «Ederra da dultzaina jotzaileen topagune hori. Musika lanak eginda, denek elkarrekin bazkaltzen dugu. Egund oso polita da guretzat, berezia», aitortu du Arrizabalagak. Etorriko direnen artean Oiartzunen bizi diren bi antxotar aipatu ditu musikariak, Vanessa Ziaurritz eta Ane Gil. Biek, asteartez aparte, beste egunetan ere lagunduko dute.

Gozamena da haientzat herriko



Antxoko dultzaineroak, maiatzaren 24ko Basari Egunean. J. Arrizabalaga

Dultzainak, sanferminen sinfoniaren zati

festen sinfoniaren zati izatea. Pasaian jotzen dute batez ere, «Antxon gehienbat».

Erreferenteak

Dultzainarekin nolatan hasi zen galdetuta, gaztetako erreferentziak aipatu ditu Arrizabalagak. «Irungo Urantzuko Dultzaina Taldea edo Perez de Lazarraga ikusitakoak naiz herrian garai batean. 'Eta gu, zergatik ez?,' esan ge-

nuen. Manu Beltranekin Pasaia Musika ikasten hasi, eta aurrera jarraitu genuen. Hasieran Txomin Beguerekin hasi nintzen, hark utzi eta segitu nuen, gaur arte. Batez ere Urantzukoak eta Perez de Lazarraga izan ziren nire erreferentzia».

Jo, festan murgildu, eta herritarrak murgilarazi. Kaleak girotu, eta ondo pasa. Sanferminen sinfoniaren zati da Antxoko Dultzaineroen Taldea. ■



www.molde.eus
LANERAKO BABESA



Nafarroa Etorbidea, 10 · 20110 Pasaia (GIPUZKOA) · Tel.: 943 341 035 · www.molde.eus

LIMPIEZAS
GARBIKETAREN PROFESIONALAK
Tel. 943 260 860

TXINDOKI

GORA SAN FERMINAK!

info@limpiezastxindoki.com
<https://www.limpiezastxindoki.com/>
Txatxamendi kalea 43, 110 poligonoa. Lezo

PASAI-A - LEZO
LIZEOA

HERRIKO JAIE TAN ERE EUSKARA AHOAN!



EGITARAU OSOA HEMEN

labureus.oarsoagenda



Ricardo Albin

TXUPINAZOA, INGURUKO BEREZIENETAKOA

HILAREN 4AN, 20:00ETAN. Festa guztiek dute hasiera ekitaldi bat. Antxokoa oso berezia da: festetako protagonisten aurkezpenaren ondoren, gazte eskalatzaileek suziria San Fermin elizako kanpandorrera igotzen dute, eskalatzen. Han pizten da sanferminak abiatzeko sua.



Ricardo Albin

DANBORRADAK, SANFERMINETAKO IKUR

GAUR, BIHAR ETA 7AN. Hiru danborrada nagusi dituzte sanferminek, herriaren eta festen ezaugarri dira. Lehena gaur (ostirala) gauerdian izango da, beternoena. Bigarrena bihar, 20:30etik, Basari elkarteara. Hirugarrena beti San Fermin egunean (astelehenean aurten) egiten da, haurrena (17:30). Partaide eta ikusle askok ematen diete kolorea burrunbei.



Imanol Saiz

GAZTEEK, GURE ZUMARDIARI AGUR

HILAREN 6AN, EGUN OSOZ. Igandearekin egingo da Gazte Eguna, egun osorako egitarauarekin. 13:12ko txupinazoaren ondoren, petanka txapelketa egingo dute Gure Zumardian, eta ondoren, herri bazkaria (15:00). Gero, kuadrillen arteko jolasak egin, eta Hamarru elektrotzarangarekin kalejiraren txanda. Egungo Gure Zumardiari agur esango diote horrela gazteek.



Gora San Fermin eta ibili fin!

Astelehenetan:
9:00-13:00 / 15:00-19:00
Astartetik ostegunera:
9:00-20:00
Ostiraletan: 9:00-15:00

Fernández - Valderrama Egaña
HORTZ KLINIKA
www.fernandezvalderramaegana.com
info@fernandezvalderramaegana.com

Tel.: 943 52 41 61.
Gure Zumardia 24, behea.
PASAI ANTXXO



**Ongi pasa
Sanferminak!**

Axular Plaza, 3. Pasai Antxo
Tel.: 943 34 05 42



**SEXISTA eta
LGTBOFOBORIK
GABEKO JAIK!**

**FIESTAS SIN
SEXISTAS ni
LGTBOFOS**

agresiones

eraso

pasai